



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO ABENDUAREN 18AN GOIZEKO 9:45EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2020/11/24ko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2020ko azaroaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2020/11/30ko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2020ko azaroaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2020/12/09ko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2020ko abenduaren 9ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- COVID-19KO PANDEMIA DELA-ETA OSTALARI ETA MERKATARIEI INBERTSIOETARAKO BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZEN BIGARREN BANAKETA ONARTZEA.

Ikusirik

2020ko Urriaren 27an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Covid 19ari aurre egiteko, Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko, jarduera ekonomikoa prestatzera bideratutako inbertsioak diruz laguntzeko oinarriak.

Covid 19ak eragindako egoera berrira egokitzeko Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza establezimenduek egin beharreko inbertsioak, ekipamenduak jartzea eta/edo inbertsio horiek egiteko ikerketak diruz lagunduko dira.

Dirulaguntzaren onuradunak izango dira Usurbilgo Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dauden Txikizkako Merkataritza eta Ostalaritza sektoreetako pertsona juridiko nahiz fisikoak, eta beraien jarduera eranskinetako JESN zerrendan jasotzen bada.



Usurbilgo Udala

Deialdi honi aurre egiteko zenbatekoa 28.006,00 € dira.

Diruz lagundutako jarduerak 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31 artean egingo dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako jarduketaren %100 artekoa izango da, eta diruz lagun daitekeen gastua, lehenengo banaketan, gehienez ere 2500 eurokoa izango da establezimendu bakoitzeko. Horretarako, haren finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideak ez badira nahikoak egindako eskaerei ezarritako zenbateko eta ehunekoetan erantzuteko, horien artean hainbanatuko dira, oinarri gisa aurkeztutako aurrekontuaren arabera kalkulaturako diru-laguntza teorikoaren zenbatekoa hartuta, oinarrietan ezarritako muga kontutan hartuta, beti ere aurkeztutako aurrekontuak deialdiaren helburua justifikatzen badu.

BEZa eta bestelako zeharkako zergak diruz lagunduko dira, soilik ez badira berreskuragarriak eta orekatzea ezinezkoa suertatzen bada.

Epea amaituta, 31 eskaera jaso dira.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren eskaera guztira, 69.174,22 €koa izan da. Establezimendu bakoitzari gehienez ere 2500 €ko zenbatekoa onartuta berriz 49.299,24 € dira. Azken zenbateko honi erantzuteko finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideak ez direnez nahikoak, izandako eskaeran artean hainbanatu da, onartutako gastuaren %56,81 a suposatu duelarik. Abenduaren 9an ospatutako Gobernu Batzordean onartu bezala interesatuei dagokien diru-laguntza jakinerazi zaie eta hiru egun baliodunen baitan diru-laguntza onartu edo ukatu dute, eta onartu dutenen arabera bigarren banaketa burutu da. Diru-laguntzaren onarpenen ondoren guztira onartutako gastua 46.259,60 € dira, berriro ere diru-laguntza onartu dutenen artean hainbanaturik, onartutako gastuaren %60,54 suposatu du.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian bigarrenengo banaketa honen berri emango da eta interesatuari ere emailaz dagokion diru-laguntza jakin eraziko zaio eta bakoitzari dagokion diru-laguntza %100 ean ordainduko zaio.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, Uztailaren 21ekoa.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Eranskinetan jasotzen den taularen arabera, dirulaguntza onartu duten saltokien eskaeren artean bigarren banaketaren zenbatekoak onartzea.



Usurbilgo Udala

Bigarrena: Diru-laguntza jaso ahal izateko aurretik inbertsioari dagozkion baimenak eskatuak eta onartuak izatea .

Hirugarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian bigarren banaketa honen berri emango da.

Laugarrena: Ebazpen hau onartzearekin batera interesatuari %100a ordainduko zaio.

Bostgarrena: Diru-laguntza hau aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.5000.480.241.00.06 (A 2133-2020)

Seigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

3.- SANTUENEA 17 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0447

SANTUENEA 17 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkarietan diharduen MIGUEL ANGEL DELGADO CAMINERO jaunak, Santuenea 17 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 164.929,28 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 865 €
	Fidantza (%120): 1.038 €


Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2020ko abenduaren 14an ALDEKO txostena eman du.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2019ko abenduaren 14an emandako 947/2020 dekretuaren bidez, SANTUENEA 17 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI administrazio-emakida esleitzea Santuenea 17 etxean igogailu bat ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 4,39 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2020ko abenduaren 15ean formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Usurbilgo Udala



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: SANTUENE 17 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MIGUEL ANGEL DELGADO CAMINERO jaunari, Santuenea 17 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 865 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.038 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.038 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.04/2020-0447" jarriaz kontzeptuan.



Usurbilgo Udala

- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.
- DAVID CALVILLA HIDALGO arkitektoak 2020ko irailean (EHAE0 2020-09-21) idatzitako idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 4,39 m²-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- **Kanpo urbanizazioa eta eraikuntza barruko sestren arteko aldaketak irisgarria izan beharko du, hau da, koskarik gabea.**
- Igogailuaren obra egikaritzearekin batera, **interesdunak sarrera aurreko farola lekuz aldatu beharko du**, oinezkoentzat oztopoa izan ez dadin.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoek bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irigarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan



Usurbilgo Udala

indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.

- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak, EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berriazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Irogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- MUNALURRA KALEA 16 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA



Usurbilgo Udala

EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0411


MUNALURRA KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen LUKA ARANGUREN ECHEVERRIA jaunak, Munalurra kalea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 164.703,55 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.687,85 € Fidantza (%120): 2.025,42 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, udal arkitektoak, Amaia Ilarreta Izeta andereak, 2020ko azaroaren 23an ALDEKO txostena eman du.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2020ko azaroaren 23an emandako 2020/910 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI, Munalurra kalea 16 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 21,67 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2020ko azaroaren 24an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak



Usurbilgo Udala

kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen LUKA ARANGUREN ECHEVERRIA jaunari, Munalurra kalea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.687,85 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.025,42 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
2.025,42 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2020-0411*" jarriaz kontzeptuan.
 - Obrak hasi aurretik okupatuko den lurzoruan egun azpiegiturarik badagoen ziurtatu beharko da Udaleko Zerbitzu Sailarekin.
- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.
- Iñigo Unanue arkitektoak 2020ko uztailan (EHAE0 24/08/2020) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA.** Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 21,67 m²-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoan bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- **ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA.** Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6.



Usurbilgo Udala

artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioren bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarritzeko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»

- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu, eta bereziki ondokoak:
 - Sarrerako atearen 2 aldeetan gutxienez 1,4m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
 - Igogailuaren sarreraren aurrean 1,5 m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
 - Igogailuaren kabinak gutxienez 1,00 m x 1,25 m-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 0,80 m-ko pasabide librea.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira eta eskaileran EKT betetzen duten eskubarandak jarri beharko dira.
 - Eskailera tramu berriek 1,0 m-ko gutxienezko zabalera izango dute.
 - Igogailurainoko korridoreak gutxienezko 1,1 m-ko zabalera izango du.
 - Materiale, kolore eta itxurari dagokionean, inguruko portaletan orainartean egikaritu diren eskuhartzeen antzera bete beharko da.
 - Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuaren inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: urte 1.



Usurbilgo Udala

- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Irogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- MUNALURRA KALEA 18 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2018-0063

MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileak, Munalurra kalea 18 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 26an zera erabaki zuen: MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileari, Munalurra kalea 18 etxean igogailua jartzeko udal baimena



Usurbilgo Udala

ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 155.424,62 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 148.582,34 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.637,10 €
	Fidantza (%120): 1.964,52 €

Bestalde, Alkateak 2018ko ekainaren 15ean emandako 2018/0686 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI Munalurra kalea 18 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 21,67 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2018ko ekainaren 15ean formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2020ko azaroaren 9an eta azaroaren 23an MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkarietan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administrazioleak obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, tartean hondakinen kudeaketa amaiera txostena, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA


Udal arkitektoak, Amai Ilarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2020ko abenduaren 11ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio eta Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako fidantza buelta daitekeela jakinarazi du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkarietan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administrazioleak sustaturik, Munalurra kalea 18 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.



Usurbilgo Udala

6.- MUNALURRA KALEA 24 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2017-0557

MUNALURRA KALEA 24 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administraileak, Munalurra kalea 24 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 19an zera erabaki zuen: MUNALURRA KALEA 24 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administraileari, Munalurra kalea 24 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 195.424,89 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 142.405,25 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.059,46 € Fidantza (%120): 2.471,35 €

Bestalde, Alkateak 2018ko ekainaren 12an emandako 2018/0673 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 24 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI Munalurra kalea 24 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 21,67 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2018ko ekainaren 13an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2020ko azaroaren 9an eta azaroaren 23an MUNALURRA KALEA 24 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administraileak obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, tartean hondakinen kudeaketa amaiera txostena, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amai Ilarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2020ko abenduaren 11ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio eta Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako fidantza buelta daitekeela jakinarazi du.



Usurbilgo Udala

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 24 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileak sustaturik, Munalurra kalea 24 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

7.- MUNALURRA KALEA 8 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2017-0591

MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileak, Munalurra kalea 8 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko uztailaren 17an zera erabaki zuen: MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileari, Munalurra kalea 8 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 166.991,46 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 176.812,99 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 736,17 €
	Fidantza (%120): 883,40 €

Bestalde, Alkateak 2018ko uztailaren 6an emandako 2018/0787 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI, Munalurra kalea 8 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 20,54 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2018ko uztailaren 6an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Usurbilgo Udala

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2020ko azaroaren 9an eta azaroaren 23an MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratibak obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, tartean hondakinen kudeaketa amaiera txostena, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amai Ilarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2020ko abenduaren 11ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio eta Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako fidantza buelta daitekeela jakinarazi du.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratibak sustaturik, Munalurra kalea 8 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

8.- SANTUENEA 18 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0006

SANTUENEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MIGUEL A. DELGADO CAMINERO jaunak, Santuenea 18 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko abenduaren 10ean, zera erabaki zuen: SANTUENEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI, Santuenea 18 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK

Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 179.498,84 €
-----------------------------------	-----------------------



Usurbilgo Udala

Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 151.562,36 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 865 €
	Fidantza (%120): 1.038 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, SANTUENE 18 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MIGUEL A. DELGADO CAMINERO jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Santuenea 18 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2020ko urtarrilaren 28an ezarritako 1.038 €-tako fidantza (IE 2-2020) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES92 2095 5069 0410 6081 2095.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

9.- 2020KO OHIKO KIROL EGITASMOAK GARATZEKO ETA BI URTE NATURALAK HARTZEN DITUZTEN DIRULAGUNTZEN BIGARREN ORDAINKETAK ONARTZEA.

ESP.:KI.01/2020-0001

Ikusirik

2020ko kirol arloko egitasmoak burutzeko diru laguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 7an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez.



Usurbilgo Udala

Epea 2020ko otsailaren 04ean amaitu ondoren, lerro bakoitzari zegozkien diru-kopuruak erabaki ziren eta alegazioak egiteko epea zabaldu zen.

Alegazio-epea amaitu ondoren eta alegaziorik izan ez zenez,-aurreneko zatia eskatu zuten elkarteei %50a eman zitzaien.

Denboraldika edo bi urte naturalak hartzen dituzten jarduerak zurrizko, elkarteei 2020ko irailaren 25 arteko epea zuten.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, zurrizko hauek aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2020an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO 2020/01/07).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (GAO 2017/07/18).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2020ko kirol egitasmoak garatzeko eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hauek onartzea.

1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenarako

Tximeleta	863,55€
Usurbil FT	5.658,76 €
Makax	743,51 €
Pagazpe	1.593,87€
Usurbil KE	7.820,33 €

2.- Kultur eta bestelako elkarten kirol jardueretarako eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hau onartzea.

Einean	12,47 €
--------	---------

Bigarrena: Gastu hauek aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 01 Kirol tadeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A2 2020)



Usurbilgo Udala

1.4300.481.341.00.07 Kirol elkarte ez direnen kirol jarduerak (A5 2020)

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri ematea.

Laugarrena: Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.